



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2016ko azaroak 3.
Ordua: 9:10 – 10:20
Tokia: Udaletxeko Bilkura Gelan

Bertaratutakoak:

Iñigo Gómez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Alazne Lafragua Ureta
Arkaitz San Jose Martínez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira bertaratu:

José Luis de Valle Duque

M^a Ascensión Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:10etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2016ko urriaren 6an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Oharririk egin ez denez, 2016ko urriaren 6an egindako saioko akta bozkatu da.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Alazne Lafragua Ureta, EHBildu (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

2.- 11/2016 kreditua gaitzea.



Alkatea: Behar dena da guztira 6.238,35 euroko zenbatekoa duten bi gastu partida onartzea. Partida hauek diru-sarrera handiagoekin finantzatzen dira eta Udaletxe zaharraren irisgarritasunerako diru laguntzatik aterako dira. Zehazki, ondorengo partidak dira: 150226002 partida, espazio publikoen suspertze komertzialerako, bankuak, zaborrontziak eta abar jartzeko eta 459601004 partida, auzoetako inbertsioena, Cruz eta Valderramako bideak. Bi partida dira eta bi diru-laguntza ditugu; bata, herrigunean merkatal-jarduera suspertzeko xedearekin altzariak erosteko eta, bestalde, landa-bideen partida dugu, hiru bide konpontzeko eskatu genuena (Cruz, Valderrama eta Las Campas bideak), eta horietako bi konpontzeko finantzaketa lortzean datza, Cruz eta Valderrama bideak alegia. Zerbait esan nahi baduzue.

“AKORDIO-PROIEKTUA

Ikusirik indarrean dagoen 2016ko Udal Aurrekontuaren Gastuen Egoera-orrian ordainketa-kredituak gaitzearen inguruko 11/2016 espedientea, 6.238,35 eurokoa.

Ulertuta, Idazkari-Kontu-hartzaileak jakinarazten duenez, espedientea bat datorrela otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 31. artikuluan eskatutako betekizunekin eta Egikaritze-aurrekontuaren Udal Arauan ezarritakoarekin, 2016koarenan egokiro egindako Ogasun eta Antolamendu Informazio Batzordean proposatzen zaio Udalbatzari har dezala hurrengo

AKORDIOA

Aipatutako akordioa eta bertatik eratortzen diren diru-sarrera eta gastuekin lotutako egoeren aldaketak, jarraian zerrendatzen direnak, onartzea:

DIRU-SARREREN EGOERA

Kreditua sortzen duten diru-sarrerak dira:

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEK OA
710.02	<i>Eusko Jaurlaritza diru-laguntza: Udaletxe zaharraren irisgarritasuna hobetzeko, igogailua eta komuna.</i>	6.238,35
	GUZTIRA	6.238,35

eta, aurrekontuari dagokionez, 2016ko ekitaldirako indarrean dagoen Aurrekontuaren Diru-sarreraren Egoera aldatzea dakarte, modu honetan:

AURREKONTU U- APLIKAZIOA	IZENA	HASIERAK O KREDITUA	IGOERA	KREDITUA GUZTIRA
710.02	<i>Eusko Jaurlaritza diru-laguntza: Udaletxe zaharraren irisgarritasuna hobetzeko, igogailua eta komuna.</i>	22.105,50	6.238,35	28.343,85
		22.105,50	6.238,35	28.343,85



DIRU-SARRERA KONTZEPTUAN IGOERAREN ZENBATEKO OSOA:

6.238,35

GASTUEN ORRIA

Aurrekontu-aplikazioa	IZENA	ZENBATEKOA
150.226.002	SUSPERTZE KOMERTZIALA ESPAZIO PUBLIKOETAN: BANKUAK, ZABORRONTZIAK, SEINALEAK, LORE ASKAK...	3.567,14
459.601.004	INBERTSIOAK AUZOETAN: CRUZ ETA VALDERRAMA BIDEAK	2.671,21
	GUZTIRA	6.238,35

GAITUTAKO KREDITUEN ZENBATEKO OSOA: 6.238,35

Artziniegan, 2016ko irailaren 28an”.

Joseba Vivanco Retes: bai, gu abstenituko gara, aurretiko informazio-batzordean apur bat azaldu genuen moduan. Dagoeneko aipatu genuen arrazoiagatik, gaitze honek auzoetarako esleituta zegoen 16.000 euroko partida osatzen duelako, bideen inbertsioetatik guri dagokigun partea ordaindu ahal izateko, eta esan genuen bezala, gure ustez, ekainean auzoetako bizilagunekin bilerak ospatu ondoren, iruditzen zaigu logikoena zela horren ondoren, zegokion informazio-batzordean, 16.000 euro horiek zertan inbertituko ziren jorratu izana, amaierako emaitza agian bi bide hauetan inbertitzea izanda ere.

. Alderdi guztiekin 16.000 euro horiek zertan erabiliko ziren adostu eta erabakia hartu. Eta ez kasu honetan bezala, izan ere, auzoetarako 16.000 euro horiek zertan erabiliko diren erabakita dago eta eginda eta itxita dagoen gauza bezala aurkezten zaigu. Hori izango da gure abstentzioaren arrazoia.

Joseba Elejalde Ribacoba: nire ikuspuntutik, eta Alderdi Popularretik, pixka bat honela gaude eta hala helarazi genion Gobernu Batzordeari ere. Ados gaude obra hauek burutzeko beharrezkin, baina ez gaude ados hori egiteko moduarekin eta edukiarekin. Uste dugu hobe egiterik bazela. Esaterako, gu jakinaren gainean jarriz eta, Joseba Vivancok esan duen moduan, bilera bat antolatuz alderdi guztien artean adostasun batera iristeko. Burutuko diren edo egikarituko diren gainerako obrei begira, espero dut aintzat hartuko direla alderdi guztien erabakiak eta baita auzo guztien iritzia ere, zeren eta zuk zeuk, Iñigo, lehengo egunean aipatu zenuen moduan, banaka auzo guztietako eskaerak azaldu zenituenean, gauza asko lan edo obra txikiekin, edo inbertsio txikiekin, egikaritzen joateko aukera bazen. Nik ulertzen dut bi bide horiek konpontzea beharrezkoa dela, Valderramako bideak lau urtetik gora daramatza igaroezin, baina uste dugu edo uste dut gauzak era logikoago batean egin daitezkeela, guztiok iritzia eta botoa izateko moduan.

Alkatea: bai, batzordean esan nuen bezala, egia da oso gauza handiak daudela, auzoetako bileren ondorioetan, pixkanaka planifikatu beharko direnak, eta gauza txikiagoak daude, batzuk dagoeneko egin ditugu, eta beste batzuk pixkanaka baloratu beharko ditugu. Helburua da aprobetxatzea dagoeneko bideen balorazio bat badugula, eta bideak diru-laguntzarako aurkeztu zirela ere. Cruz bidearen kasuan, tira, diru-laguntza jaso dezake, Valderrama bidea, barkatu, Cruz bidea ez, Campas bidea. Cruz bideak ere diru-laguntza jaso dezake, Valderrama bideak ez. Jarduera beharrezkoa da eta dagoeneko badugu teknikarien balorazioa eta, ondorioz, bagenekien jada zein zen lan hori burutzeko beharrezko zenbatekoa. Zuk esan duzun bezala, hiru edo lau urte daramatza lur-jausiak konpondu gabe. Besterik ez badago, bozketa egingo dugu.



Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta María Lorente Burgos EAJ-PNV alderditik (3);

Onartuta geratu da.

3.- Udaletxe zaharraren eraikina udal gazte-zentro gisa birgaitzeko kontratazio-espedientearen eta agirien onarpena.

“2016ko urriaren 26an EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Ikusirik, 2015eko uztailaren 24ko ezohiko bilkuran Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuela “Udaletxe zaharraren eraikina udal gazte-zentro gisa birgaitzeko lanak” obra egikaritzeko diru-laguntzaren eskaera.

KONTUAN HARTUZ, 2016-2017 Foru Planaren programaren barruan, Diputatuen Kontseiluak, 56/2016 zenbakidun akordio bidez, 166.245,60 euroko diru-laguntza eman zuela obra egikaritzeko.

KONTUAN HARTUZ, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordearen 2015eko abenduaren 30eko ebazpen bidez, 52.630,13 euroko diru-laguntza eman zela (acc15-01-005-01) Udaletxe zaharrean igogailua eta komuna egiteko.

IKUSIRIK, Alkatetzaren 2016ko apirilaren 21eko 65. zenbakidun dekretu bidez, aipatu obren proiektu teknikoaren idazketa enkargatu zela.

IKUSIRIK, Tokiko Gobernu Batzordeak Proiektu Tekniko hori onartu zuela 2016ko abuztuaren 31n burututako saioan, 238.435,78 euroko aurrekontuarekin.

Kontratazioaren ezaugarriak aintzat hartuta, prozedura egokiena publikitaterik gabeko prozedura negoziatua dela erabaki da.

Dokumentuak aztertuta, Idazkaritzaren Txostena ikusita, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren bigarren xedapen gehigarriak eta 110. artikulua ezarritakoa betez,

LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK HONAKOA ERABAKI DU, BERTARATUEN ALDEKO BOTOAREKIN:

LEHENIK. *Kontratazio-espeditentea onartzea, publikitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez, “Udaletxe zaharraren eraikina udal gazte-zentro gisa birgaitzeko”.*



BIGARRENIK. *Udal honek aipatu kontratazioa gauzatzeko behar duen gastua onartzea, hau da, 197.054,36 euro eta 41.381,42 euro BEZari dagokionez (238.435,78 €). Gastu hori 2016 ekitaldiko Udal honen Udal Aurrekontuaren gastuen egoera-orriko XXXXX aplikazioen kargura izango da.*

HIRUGARRENIK. *“Udaletxe zaharraren eraikina udal gazte-zentro gisa birgaitzeko” publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidezko kontratua arautuko duten Berariazko Klausula Administrazioen Agiriak eta Preskripzio Teknikoen Agiriak onartzea.*

LAUGARRENIK. *Ondorengo enpresei eskaintzak eskatzea:*

- 1.-VEULSA**
- 2.-INDENORT**
- 3.-ARABAOBRA**
- 4.-OLABE ARANZABAL CONSTRUCCIONES, S.L.-“**

Arkaitz San José Martínez: Ez du berariaz azaltzen egindako proposamena, azkeneko obrak bakarrik...

Alkatea: barkatu Arkaitz, zeri buruz ari zara?

Arkaitz San José Martínez: Udaletxeko obrei buruz. Beno, kudeaketarekin erlazio gehiago dauka, ados, orain hasiko baitira gazte-espazio gisa birgaitzeko lanak. Orduan, tira, hasiko dira, agiriak atera artean, eskaintzak jaso artean, eta obra burutu artean, zenbait hilabete iraungo ditu, hilabete batzuk, beraz, espero dezagun espazio horren kudeaketa-eredu bat izango dugula obrak amaitu aurretik. Eta kontuan hartuta burutu zen prozesu guzti hura, tira, behintzat iritziren bat jaso zen, eta beno,aldi berean egin daitezela, presta dadila, espazio horretarako kudeaketa-eredua apur bat erdizka geratu baitzen... interes desberdinak zeuden, iritzi desberdinak, gazteen arteko gazteenek edo zaharrenek hitz egiten zutenean. Bestalde, tutore, guraso eta abarren funtzioaren gaia zegoen. Tira, badakit hau ez dagoela berariaz Osoko Bilkuran aurkeztutako proposamenarekin lotuta, baina badu zerikusia espazioaren etorkizunarekin.

Alkatea: bai, kudeaketari dagokionez planteamendu bat egin behar dugu, zalantzarik gabe. Eskertzen dizut parte-hartzea, baina puntu honetan agiriez ari gara. Agiria Osoko Bilkurara ekarri dugu baliabideen %10 baino handiagoa delako, ezta? Beraz, Aldundiaren eredia da. Berez, Foru Planak ere sartu digu aldaketaren bat agiritan, eta orain onartu behar ditugu obren kontratazio-prozedurari ekin ahal izateko.

Alazne Lafragua Ureta: gazteekin bilerak egin zirenean adostu genuen bilerak berriro antolatuko zirela, dena erdibidean geratu zen.

Alkatea: axola ez badizue, aztertzen ari garena Agiria da, nahi baduzue gero hitz egingo dugu horretaz, galde-erreguetan.

Alazne Lafragua Ureta: ados, ados.

Joseba Vivanco Retes: zehaztasun bat besterik ez, izan ere, lehengo egunean aipatu genuen, ez dakit kasu konkretu honetan izan zen edo beste batean, bajen gaia, ausarkeriazko baja, eta ez dut gogoratzen kasu jakin honen inguruan izan zen.

Alkatea: bai.

Joseba Vivanco Retes: kasu honetan?

El Alcalde: bai, honetan izan zen.

Joseba Vivanco Retes: gauza da, ondoren, berrikustean, aipatzeagatik diot soilik, 2014an Batzar Nagusiek beraiek onartu zituztela foru sektore publikoko obra-kontratueterako klausula sozial batzuk, ez Udaletarako, baina agian aplikagarriak direnak, eta 6. artikuluan honakoa esaten da: “printzipioz, neurritz kanpokotzat edo ezohizkotzat joko dira onartutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoarekiko %10 bat baino beherago dauden eskaintzak”. Agian behar badugu... orientazio bat dago hor, Aldundiaren erreferentzia bat alegia.

Alkatea: kendu egin zen, eta komentatu genuena izan zen apur bat kontratazio-mahaiaren irizpidearen arabera geratzen dela ausardiakozko baja bat exijitzeko aukera eta, beraz, kontratistari



eskatu ahal dizkiogula beharrezkoak diren bermeak obra eskaintako prezioan egikaritu ahal duela frogatzeko. Zer edo zer gehiago? Bozka dezagun orduan.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta María Lorente Burgos EAJ-PNV alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

4.- Alderdi Popularraren mozioa landa-zonaldeetako anbulantzia medikalizatuen areagotzearen ingurukoa.

“ALDERDI POPULARREKO UDAL TALDEAREN MOZIOA ARTZINIEGAKO UDALEKO ALKATEARI.

*Artziniegako Udaleko Alderdi Popularraren Taldeak, Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 97. artikuluan ezarritakoaren babespean, aurkezten du, eztabaidarako eta, hala badagokio, hurrengo Ohiko Bilkuran onar dadin, ondorengo **MOZIOA**:*

Arrazoiak:

Arabako Lurralde Historikoak defizit garrantzitsua du anbulantzia medikalizatuen kopuruari dagokionez eta defizit hori are larriagoa da landa-zonaldeetan, medikua eta bizi-euskarriko neurriak dituen anbulantzia bakarra Gasteizen baitago.

Anbulantzia medikalizatu hauek beharrezkoak eta ezinbestekoak dira infartu kasuetan eta istripu larrietan eta gaur egun Arabako herrietan erabiltzen diren anbulantziek baino arreta eraginkorragoa ematen dute, gaur egun dauden anbulantzia horiek ez baitute medikurik, ia ez baitute bizi-euskarriko neurririk eta oso oinarrizko neurriak baitira.

Honen aurrean, Alderdi Popularrak hurrengo Mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

MOZIOA

- *Artziniegako Udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari eskatzen dio lehenbailehen Arabako Lurralde Historikoan dauden anbulantzia medikalizatuen kopurua areagotu dezan, hartara landa-zonaldeak arreta hobe baten bermea izan dezan larrialdiak eta kasu larriak gertatzen direnean”.*

Joseba Elejalde Ribacoba: orain azalduko dut zergatik ari den Alderdi Popularra mozio hauek aurkezten Arabako probintziako udal guztietan. Momentu honetan Arabako probintziak ditu, badakigu, bizi euskarri aurreratuko bi unitate medikalizatu, horietako bat Laudion dago eta Bizkaiko hainbat udalerrirekin partekatzen dugu, eta baita Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko zenbait udalerrirekin ere. Erizaintza duten beste bi bizi euskarri aurreratuko unitate ditugu, bat Amurrión dago eta bestea Gasteizen. Horrez gain, hamabi unitate ditugu oinarrizko bizi-euskarriarekin. Hortik aurrera, Alderdi Popularrak, Batzar Nagusietan, zenbait zuzenketa sartu zituen eta alderdi guztiek onartu zituzten zuzenketa horiek Batzar Nagusietan. Arrazoiaren artean, nabarmentzekoa da, esan dudana bezala, Laudion bizi-euskarri aurreratuko anbulantzia, medikalizatu, ESK-LARRIALDIAK sindikatuak salatzen duen moduan, batez ere Bizkaian aritzen dela, probintzia guztia barne hartzea ezinezkoa baita. Beraz, esan liteke Arabak mota honetako anbulantzia bakarra duela. Salaketa beraren ildotik, ESK sindikatuko ordezkariak ez daude ados ratioekin. Ratioak dira Osakidetza ezartzen duen neurria bizi-euskarriko anbulantzia



medikalizatu bat jartzeko. Haiek diote Arabako ratioa 80.000 biztanlekoa dela. Kontuan hartuta baditugula lau euskarri-anbulantzia, bi bizi-euskarriko ambulanzia gehi bi bizi-euskarri aurreratuko ambulanzia, lau, bi erizain eta bi medikurekin. Ratioa kontuan hartuta, haien arabera 80.000koa dena, eta Araban 322.000 biztanle garela, eta ambulanzia bat Bizkaiarekin partekatzen dugula, ambulanzia bakoitzeko 91.000 biztanle ateratzen dira, beraz, ratioa haiek diotena baino handiagoa da. ESK sindikatutik diote ere hori aintzat hartu beharko litzatekeela, azken batean, ratioa Osakidetzak momentu honetan planteatzen duenaren gainetik dago. 2016ko Gasteizko biztanleria-txostenean 246.042 biztanle aipatzen dira. Anbulanzia medikalizatu bat dute soilik eta beste bat erizaintzarekin. Benetan, hori nahikoa al da Gasteizko eskualde guztiari eta Arabako probintzia guztiari zerbitzua emateko? Badakigu medikalizatu bat Laudion dagoela eta bizi-euskarriko bestea Gasteizen. Bizi-euskarriko ambulanzia, Gasteiztik, Arabako Errioxara, Arabako Lautadara, Arabako Mendialdera eta abarrera mugitu behar da. Egoera are larriagoa da Laudioko ambulanzia ospitale arteko lekualdaketetan ari denean, esaterako, Txagorritxuko Unibertsitate Ospitaleko jaioberrien unitatetik Gurutzetako Ospitaleko jaioberrien unitatera, edo beste erkidegoetara ateraldiak egiten. Dagoeneko aipatu dut badugula bat, Laudiokoa, esan dudana eta errepikatzen dudana bezala, Bizkaira atera eta bertan zerbitzua ematen duena, eta beste autonomia erkidegoetara ere ateratzen dena. Aipatu beharrekoa da ere hiru probintzietatik zabalena dela Araba eta landa-zonalde eta -eremu ugari dituela. Esan dudana bezala, Batzar Nagusietan, suhiltzaileen erakunde autonomoaren sorreran, Salbamenduetarako eta Suteak Itzaltzeko Eskualdeko Unitateen inguruan aurkeztutako zuzenketetan, Alderdi Popularrak zuzenketa bat proposatu zuen Unitate horietan hiru bizi-euskarriko ambulanzia medikalizatu jartzeko beharraren inguruan, eta alderdi guztiek onartu egin zuten zuzenketa Batzar Nagusietan. Halaber, Eltziego edo Bastidaren moduko herrietan ere alderdi guztiek onartu dute. Alderdi Popularrak uste du Arabako probintziarako dauden bizi-euskarriko ambulanzien kopurua ez dela inolaz ere nahikoa lurralde honetako benetako beharrak asebetetzeko. Eta ez gara oinarritzen soilik biztanle-kopuruan, hau da, biztanle-ratioetan, izan ere, momentu honetan probintzia zabalena gara, landa-nukleo ugariarekin, eta Araba osatzen duten 51 udalerrietan bizi diren pertsona guztiak barne hartzeko beharra dugu. Berriz ere errepikatzen dugu pasa den 2016ko urriaren 28an aurkeztutako mozioa, eta berriz ere eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari lehenbailehen areagotu dezan Arabako probintzian dauden ambulanzia medikalizatu kopurura, gure zerbitzuak gainerako euskal probintzien parekoak izan daitezen. Esandako moduan, gainerako euskal probintziek lau bizi-euskarri aurreratuko ambulanzia medikalizatu dituzte, Bizkaiak sei bizi-euskarri aurreratuko unitate ditu erizaintzarekin, eta Gipuzkoak lau. Eta, bestalde, oinarritzko bizi-euskarria duten unitateak aztertzen baditugu, lehenago esan dudana bezala, Arabak hamabi ditu, Bizkaiak hogeita bederatzitik eta Gipuzkoak hogeita lau. Unitate hauek egiten dutena da, gutxi gorabehera, gaixoak kontsultara edo ospitale artean eramatea, patologia larriarik ez badute. Horregatik azpimarratzen dugu gaur, hemen, Udal honetan, aurkeztu dugun akordioa onartzeko beharra, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzeko, gutxienez beharrezko neurriak har ditzan edo Arabako Lurralde Historikoak dituen oinarritzko beharren azterlan bat egin dezan. Izan ere, bada beste gauza bat oso bitxia dena. ESK sindikatuak dio sindikatuaren zentraletik ez daudela ados Arabak behar dituen unitate mugikor guztiak dituela esaten denean. Baina haiek diote ere, orokorrean, Euskal Autonomia Erkidego osoan defizitarioa dela zerbitzu hori. Unitate mugikor gehiago behar ditugula probintzia bakoitzeko. Beraz, ez da Alderdi Popularraren gauza bat bakarrik; badira bestelako pertsonak, egunero alor horretan lan egiten dutenak, eta haiek ere esaten dute defizita dagoela probintzian eta Euskal Autonomia Erkidegoan ematen ari den zerbitzu honekin. Ondorioz, horregatik eskatzen dut Alderdi Popularrak aurkeztutako mozioa gaur onar dadin.

Inmaculada Vivanco Retes: Artziniegako EAJ/PNV alderditik, bozeramaile gisa, zuzenketa bat aurkeztu nahi dut ambulanzien inguruko Alderdi Popularraren mozioari.

“Lehenik eta behin, inolako zalantzarik gabe gezurtatu nahi dugu Arabako Lurraldean bizi-euskarri aurreratuko ambulanzien (bidean arreta tekniko-sanitarioa emateko prestatuak) eskasia dagoela, Alderdi Popularrak bere mozioan adierazi duen bezala.

Arabako Lurralde historikoan ondorengo bizi-euskarri aurreratuko ambulanziaz daude:



1. 2 bizi-euskarri aurreratuko anbulantzia medikuarekin: 1 Gasteizen eta 1 Laudion.

2. 2 bizi-euskarri aurreratuko anbulantzia erizaintzarekin: 1 Gasteizen eta beste bat Amurrion. Aipatu behar da ere, normalean, medikua duen eta Arrasaten kokatua dagoen bizi-euskarri aurreratuko anbulantzia batek Arabako Lurraldean ere egiten dituela lekualdaketak.

Gainera, badira 12 oinarrizko bizi-euskarriko anbulantzia hasierako osasun-arreta emateko erabiltzen direnak, geografikoki banatuak Araba osoan zehar, eta horietako bat Aiarako Bailaran dago.

Horregatik, honako ZUZENKETA aurkezten da:

1.- Artziniegako Udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari eskatzen dio asistentzia-anbulantzien zerbitzuak emateko orduan, bai oinarrizko bizi-euskarrikoak nahiz bizi-euskarri aurreratukoak, pazienteen osasuna babes dadila eta zerbitzu hori ekitate- eta kalitate-baldintzetan eman dadila. Halaber, eskatzen zaio anbulantzia-garraio zerbitzu hori egokia izan dadin, eta inongo kasutan kalte ez dadin Arabako herritarrek duten osasunaren babeserako eskubidea”.

Inmaculada Vivanco Retes: Nik esan nahi dizudana da aurkeztu dugun mozioaren datuak oso ongi etorri zaizkizula, izan ere, Alderdi Popularraren mozioan esaten da anbulantzia bakarra dagoela Arabako Lurralde Historiko osoan medikuarekin eta bizi-euskarri aurreratuarekin eta anbulantzia hori Gasteizen dagoela. Eta ez dakit zergatik orain, datuak horiek baziren, gure zuzenketaren aurkezpenarekin datu horiek aldatu egin diren, eta dagoena hau da. Eta hauek Osasun Sailaren datuak dira.

Joseba Elejalde Ribacoba: Alderdi Popularretik aurkeztu den mozioan esaten da bat dagoela, agerikoa denez, zeren eta esan dudana moduan, Laudion dagoena ez da bakarrik Arabako Lurralde Historikorako, baizik eta partekatuta egiten dela...

Inmaculada Vivanco Retes: Arrasatekoarekin gertatzen den bezala, hori ere Arabarekin partekatzen da.

Joseba Elejalde Ribacoba: edonola ere, agerikoa da, ez dut kopiatu...

Inmaculada Vivanco Retes: herrialde bat gara.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, bai, herrialde bat gara, baina azkenean, herrialde hain eder eta hain zoragarri honetan, gerta ezin daitekeena da probintzia batek gainerakoek baino zerbitzu gutxiago izatea. Eta zuei normala eta logikoa iruditzen zaizue gu "paganini" bezala aritzea zentzu guztietan eta Bizkaia eta Gipuzkoak Arabak baino zerbitzu hobek izatea, ba tira, ongi etorri Euskadiko EAJn ordena berri honetara, baina zuk diozu nik kopiatu egin dudala, ez dut kopiatu. Egin dudana izan da...

Inmaculada Vivanco Retes: ez dut esan kopiatu duzunik, esan dut gure datuak irakurri dituzula, datuak irakurri dizkidazu.

Joseba Elejalde Ribacoba: aurkeztu duzuen mozioan zeharo gezurtatu duzue. Badirudi Moisesen taulak dituzuela.

Inmaculada Vivanco Retes: hemen dio anbulantzia bakarra dagoela bizi-euskarri aurreratuarekin eta Gasteizen dagoela. Hori dio pasa den astean Alderdi Popularrak aurkeztutako mozioak. Mozio hau irakurrita, nik esan dudana dio. Zuk, orain, zure aurkezpenean ez dituzu datu guztiak eman, mozioan daudenak alegia. Datuak aldatu al dira pasa den astetik hona? Ez dut jarraituko.

Joseba Elejalde Ribacoba: aktan jaso dadila Alderdi Popularrak, aurkeztutako mozioarekiko eta Alderdi Popularraren bozeramaileak ekarri dituen datu berriak ikusita, zehazki aldatzen duela, baten orde bi daudela eta horietako bat partekatuta dela, eta azken finean eskatzen dena gauza bera dela. Aurkeztu duzuenaren gaineko zuen argudioek zeharo gezurtatzen dute, Moisesen taulak dirudite, lurraldean bizi-euskarri aurreratuko anbulantziak falta direnik. Eta horrek argi uzten du ez duzuela gure lurraldearen egoera ezagutzen, duen azalerarekin, ez eta Batzar Nagusietan onartutako zuzenketak ere. EAJk berak, Batzar Nagusietan, onartutako zuzenketak alegia, eta ez dituzue ezagutzen ESK sindikatuak zerbitzu honen inguruan egindako kritikak. Baina haratago joango naiz, izan ere Jon Darpon berak, eta esaten didazu nik daturik ez dudala, baditudala, Jon Darpon jaunak, El Correoko titular batean, euskal Osasun sailburua prentsaurreko batean agertu da Osakidetza larraldietako zerbitzuko jendearekin batera,



Txema Unamuerekin, eta Osasun Saileko kontratazio eta aseguramendu zuzendariarekin, Jose Luis Elexpurrekin, eta prentsaurreko horretan Arabako Alderdi Popularrereko presidentearak, Javier de Andrések, egindako kritikei erantzun diete esanez lurraldean anbulantzia medikalizatu bakarria dagoela. Eta zu esaten ari zara bi direla, ados. Darpon jaunaren erantzuna; Darpon jaunak baieztapen hori gezurtatu du eta adierazi du, kategorikoki ere, Araban gaur, urteko egun guztietan bezala, lau bizi-euskarri aurreratuko anbulantzia ditugula, eta bi dira, ez lau, bi Gasteizen, bat Laudion eta beste bat Amurrian. Ez, bi dira bizi-euskarri aurreratukoak, bata Amurrian eta bestea Laudion, eta bi bizi-euskarriko anbulantzia erizaintzarekin, bata Amurrian eta bestea Gasteizen. Esan nahi dizudana da guztiok, momentu jakin batean, begira hemen dugu Darpon jauna, Osasun sailburua, ba guztiok egin dezakegula akatsen bat. Nik egindako akatsa aitortzen dut eta nire agerraldian adierazitako datuak jarri nahi ditut. Gauzak horrela, zuek niri esatea Arabako Lurralde Historikoak ez duela inolako gabeziarik eta ez dituela anbulantzia gehiago behar, ba zuen teilatuaren kontra harriak botatzea da, nire ustez, frogak argiak direlako, bata Gasteizen dago eta bestea Laudion. Eta probintziaren gainerakoan ez daukagu ezer ere ez. Horietako bat, Bizkaian zerbitzua ematen ari denean, edo inguruko probintzia eta erkidegoetan, edo lekualdaketak egiten ari denean, ezin dugu kontuan izan. Beraz, azken batean, beharrezkoak izango dira, nire aburuz, ez dakit, hiru, bi edo bost izango diren, edo azterlan bat burutzea, Euskadi mailan, zerbitzu honen benetako beharrak zeintzuk diren jakiteko Euskadiko biztanle guztiei estaldura eskaini ahal izateko, besterik ez.

Inmaculada Vivanco Retes: nik berriz ere diotsut, Alderdi Popularrak urriaren 28an aurkeztutako mozioa gezurtatzen da. Gaur egun honi buruz dauden datuak Osasun Sailaren eta Osakidetzaren datuak dira, eta estaldurari dagokionez, eskatzen duguna da estaldura izan dadila izan behar duena, beharrezkoa dena. Eta estalduraren inguruan goiz osoa eman dezakegu eztabaidan. Bizkaian, esaterako, ez dakit non dauden kokatuak anbulantziak, baina bizi-euskarri aurreratuko anbulantzia lekualdaketa bat burutzen ari bada Ondarroatik Galdakaoko ospitalera, Ondarroan oinarriko bizi-euskarriko anbulantzia bat behar duen hurrengoarentzat, argi dago, ordu baten edo biren buruan ez dela egongo anbulantzia. Lekualdaketak egiteari buruz esan duzunaren ildotik.

Joseba Elejalde Ribacoba: eta sei anbulantzia badituzu itxaron-denbora txikiagoa izango da anbulantzia batekin edo anbulantzia bat eta erdirekin baino. Hori horrela da.

Inmaculada Vivanco Retes: kategorikoki gezurtatu dena da Alderdi Popularrak aurkeztutako mozioan esaten zena.

Alkatea: tira, zerbait esan nahi al duzue? Lehenik eta behin, Alderdi Popularraren mozioa bozkatuko dugu.

Aurkako botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta María Lorente Burgos EAJ-PNV alderditik (3);

Abstentzia:

Batere ez

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

Alkatea: EAJ alderdiak aurkeztutako zuzenketa.

Aurkako botoak:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzia:



Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta María Lorente Burgos EAJ-PNV alderditik (3);

Ez da onartu EAJ-PNV alderdiak aurkeztutako zuzenketa.

5.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 2016ko 158 eta 172 bitarteko dekretuen berri eman du. 170. falta da, Udalaren kontratazio-espeditentean baitago.

Alkatea: nik 165.era arte dut dokumentazioan. Nik gaizki daukat. Zerbait esan nahi duzue?

Arkaitz San Jose Martínez: nik, 165. eta 166. dekretuei dagokienez, euskal pilota ikastaroetarako gastu bat onartzearen ingurukoa 165.aren kasuan eta sevillana ikastaro baten ingurukoa 166.aren kasuan, galdetu nahi nuen nola kudeatuko diren gero ikastaro horiek, hau da, tira, guk gastu bat onartzen dugu eta ondoren...

Alkatea: pilota-ikastaroarekin egiten dena da pilota-elkarteari ematen zitzaion diru-laguntza erregularizatzea, funtsean monitore bat kontratatzeke dena, orain Udaletik kontratatuko da.

Arkaitz San Jose Martínez: eta sevillana-ikastaroarekin?

Alkatea: eta sevillana-ikastaroaren kasuan zenbatekoa sevillana-ikastaroan izena eman duen jendearen artean zatituko da eta kobratuko zaie.

Arkaitz San Jose Martínez: baina ez dugu prezio publiko bat onartu, gastu bat onartu dugu.

Alkatea: gastu bat onartu dugu, bai.

Arkaitz San Jose Martínez: noski, orduan ezin dugu gero kobratu.

Alkatea: akordio horretara iritsi ginen. Guk kasu honetan egiten duguna da, sevillana-taldearekin zegoen arazoa ikusita, Gobernu Batzordean komentatu genuena izan zen hori egitea.

Arkaitz San Jose Martínez: ados, baina oker ez banabil, eta izan liteke, emandako zerbitzu baten gastua berreskuratu nahi baduzu ondorengo diru-bilketa batekin, onartu behar duzuna prezio publiko bat da, eta ez gastu bat.

Alkatea: ikastaroen prezioa ere ez da ohikoa.

Arkaitz San Jose Martínez: ba orduan tasa bat.

Alkatea: ez da tasa bat ere.

Arkaitz San Jose Martínez: baina beno. Oker ez banabil, ezin da gastu bat onartu eta gero hori kobratu.

Alkatea: hau izan zen planteatu zen irtenbidea sevillana-ikastaroan zegoen arazoa konpontzeko.

Arkaitz San Jose Martínez: eta guztion diruarekin egiten den gastua izanik, gero nola kudeatuko da? Pentsatzen dut gainerako ikastaroen moduan kudeatuko dela, hau da, epe bat irekiko da jendeak Udalean izena emateko aukera izan dezan, edo nola egingo da?

Alkatea: ez, ez dugu horrela egin.

Arkaitz San Jose Martínez: tira, ba niri iruditzen zait gaia dela nahiko... gauza da, guztion diruarekin egiten bada eta Udalak egiten badu uste duelako interes orokorrekoa dela, irekia izan beharko lukeela, nahi duenak izena emateko aukera izan dezan. Eta gainera desberdintasun bat sortzen da Udalean onartzen diren gainerako ikastaroekiko, gainerako ikastaroetarako izena eman beharra baitago, ordaindu beharra dago, prezio publiko bat onartzen da eta abar. Ez dakit, apur bat araz kanpokoa iruditzen zait.

Joseba Elejalde Ribacoba: kasu honetan, eskatu zaizkigun gainerako ikastaroen moduan zerbitzua emateko modu bakarra zen, kasu honetan, sevillana-taldearentzat, pentsatu zen irtenbidea izan litekeela urte honen guztizko kostua, datorren urtean izapidetuko zela edo pentsatuko zela zeintzuk diren ikastaro beharrezkoenak, baina aurten gauza zen ikastaroaren guztizko zenbatekoa ikastaro horren erabiltzaileek ordaintzea, asmoa zutenek...

Arkaitz San Jose Martínez: ni ez nago horren aurka.



Joseba Elejalde Ribacoba: oso ongi deritzot esan duzunari, nik ere uste nuen irekia izango zela, eta ez dut uste inongo arazorik egongo denik, berez, zuk sevillanak dantzatu nahi badituzu edo nik bihar sevillanak dantzatu nahi baditut, izan dezadala izena emateko aukera, Udalak zuzenki ematen duen zerbitzua baita. Baina beno, nola atera zen azaldu nahi nuen, zeren atera zen bazirelako hainbat pertsona, esku-pilotaren gaiarekin gertatu den moduan, esku-pilota eskolarekin arazo bat zegoen, ba sevillanak dantzatzen dituen talde honekin ere arazo bat zegoen.

Arkaitz San Jose Martínez: bai, baina tira, ez da gauza bera. Horrela egin da, baina uste dut egiteko modua ez dela zuzena. Azken batean, talde batek antolatuko badu, diru-laguntza gisa izapidetzea zegoen, hau da, taldea izan dadila ordaintzen duena.

Alkatea: beno, irtenbide puntuala da, ez dago ere ikastaroa antolatzen duen talderik. Diru-laguntza puntuala izan zen zegoen arazorako.

Arkaitz San Jose Martínez: nahiko araz kanpoko da, baina tira.

Joseba Elejalde Ribacoba: gauza zen irakasle batekin eta Kirolgest berarekin ere zerbitzu hori eman ahal izatea.

Arkaitz San Jose Martínez: bai, bai, ulertzen dut helburua ona dela. Baina izapidetzea...

Joseba Elejalde Ribacoba: legezko babesa ematea egingo zen jarduerari, bestela, beti sortzen dira arazoak alta emanda dagoen, alta emanda ez dagoen, erantzukizun-asegurua duen, erantzukizun zibileko asegurua ez duen, orduan, azkenean, ulertu genuen modurik onena zela, baina dena hobe daiteke, e? Bere garaian hala ulertu genuen.

Arkaitz San Jose Martínez: ez dakit. Orduan, diru-bilketa Udalak burutuko du?

Alkatea: diru-bilketa? Noski, Udala da kontratatzen duena.

Arkaitz San Jose Martínez: ba orduan ez dut ulertzen gastu bat onartzearena. Baina tira, berdin dio, hori esan nahi nuen honi buruz besterik ez, eta idatziz jaso dadila. Gainerako ikastaroen funtzionamenduari desberdintasun garrantzitsua iruditzen zait. Egia da kolektibo jakin baten eskaera bat dagoela, baina ez dakit, Udaletik egiten bada, gainerakoekin egiten den moduan egin beharra dago, hau da, gero irekitzen da, leku baino interesatu gehiago badaude zozketa egiten da, eta abar.

Alkatea: Besterik?

Joseba Vivanco Retes: pentsatzen dut idatziz emango zaiola jendeari ordainketa osoa derrigorrez burutu beharra...

Alkatea: dagoeneko eman dute kontua...

Joseba Vivanco Retes: bai, baina pentsatzen dut formalki jakinaraziko zaiela, ez ahoz, "dena ordaindu behar duzue" edo, esan nahi dut, jende horri "dagokizuen %100 ordaindu behar duzue" esateko izapidea, edo ez dakit.

Alkatea: ba egun batean haiek bildu nintzen, jaitsi nintzen, eta esan nien, baldintzak hauek dira. Udalak kostua bere gain har dezake, baina...

Joseba Vivanco Retes: nik diodana da idatziz jaso behar dela esan zaien hori: "jaun-andreok, baldintzak hauek dira, ordaindu behar duzue". Ondoren gero inork pentsa ez dezan...

Arkaitz San Jose Martínez: gauza nahiko araz kanpoko da, izan ere, azken batean, bada interesa agertu duen kolektibo bat, mailegu antzeko bat egiten da, hau da, nik dirua aurreratuko dizut, gero dirua jasotzen dut, eta horrek mundu guztiarentzat balio al du? Demagun, hamar lagun elkartzen bagara arrauna atsegin dugunak, ba Udalak dirua aurreratuko digu eta gero guk ordainduko dugu... ez dakit, ez dut ulertzen.

Alkatea: irtenbide puntuala izan da hori egiten urte dezente daraman talde batentzat.

Arkaitz San Jose Martínez: bai, baina irtenbide hori, badakit atzetik ez dagoela interes ezkuturik, nolabait esateko, baina beste era batera izapidetzerik bazen. Nik ez dut erabat ulertzen, hau da, alde batetik gertatzen da klaseak emango dituen pertsonak estaldura beharko duela eta orduan enpresa baten bidez egitea erabakitzen duela eta abar. Horri irtenbide bat ematen saiatzen gara, eta honela egin da. Baina ez dut ulertzen diru hori zergatik kudeatuko duten pertsona horiek, IFZ eta abarrik ez badute salbu, orduan noski, horrek bestelako inplikazioak dakartza, hau da, azken finean faktura bat aurkeztean datza, diru-laguntza baten ordainketa faktura baten bidez justifika daiteke.

Alkatea: baina ez daukate IFKrik.



Arkaitz San Jose Martínez: orduan nik diodan kasua da, arrauna egitean interesa dugun beste hamar elkarten bagara, esan dezakegu, guk bilatuko dugu baina Udalera joko dugu eta dirua itzuliko dugu, benetan, iruditzen zait...

Alkatea: berriz ere diot kasu puntual bati emandako irtenbidea izan zela, ezohiko irtenbidea. Beste aukera bat zen ezer ere ez egitea eta taldea bertan behera uztea. Agian hori irtenbide hobea zen?

Arkaitz San Jose Martínez: ez, elkarte bat sortu dezatela. Ez da zertan modu desberdinean jardun behar. Edo Udalak egin dezala, baina orduan, prezio publiko bat atera behar da gastu osoa berreskuratzen dela bermatzeko, jendeak izena emango du eta, tokiak betetzen ez badira, jende horrek Udalar ordaindu beharko dio Osoko Bilkuran edo Gobernu Batzordean adostutako prezioa, eta jendea soberan badago zozketa bat eginen da, gainerako ikastaroen modura. Azken finean, gainerako ikastaroekin egiten dena egitea, besterik ez.

Alkatea: zozketarik ez dugu egin, hain zuzen ere, eskari gehiegi dagoenean egiten duguna baita doitzen saiatzea.

Joseba Elejalde Ribacoba: dena den, kasu honetan arrazoia du. Denetik ikasten da eta hurrengorako hobetzen saiatuko gara.

Arkaitz San Jose Martínez: bestela, diru-laguntzetarako agiri bat egin daiteke urtea amaitu baino lehen, urte horretan zehar jarduerak antolatu nahi dituen jendeak uler dezan elkarte bat osatu behar dutela jarduera bat antolatu nahi badute, agiri batzuk ezarri eta diru-laguntzen bidez kudeatzen den dirua banatuz joan. Orduan planteatuko da, interesik badu? Interesa du, eta %70ean diruz lagunduko dugu. Interes gutxiago du? Gaztelaniaz emango delako, edo beste edozergatik, ba %30 emango diot. Hori da hain zuzen ere legegintzaldi osoan zehar azpimarratu duguna.

Alkatea: Besterik?

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta María Lorente Burgos EAJ-PNV alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

6. Udal kudeaketaren kontrola

- Alkatea: beno, lehenik eta behin, esango dizuet Errepideen Sailak jakinarazi digula laster, datorren astean edo hurrengoan, Tobaseko hormaren konponketa hasiko dutela, Retes de Tudelan.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni atzo egon nintzen Errepideen Diputatuarekin, hitz egin genuen zubiko obrei buruz, berehala hasiko direnak, eta ondoren hitz egin genuen espaloiei buruz eta errepidea zabaltzeari buruz. Berriz ere esan zidan haiek espero dutela urte amaierarako obrak amaituta eta egikarituta egotea, eta ondoren, tira, San Antoniotik Bentara arte eskatzen diren espaloiei buruz mintzatu ginen. Eta batez ere Bentako zatian. Orduan, esan zidan, gai hori Artziniegako Arau Subsidiarioak nola jasota dauden arabera zela; planteamenduan espalo horiek jasota badaude, haiek esku-hartzea burutu dezakete. Ez badaude, ba Arauen zuzenketa puntuala egin beharko litzateke, auzo horietan espaloiak egiteko beharra adieraziz, baina horrek denbora gehiago beharko luke, baina tira, Javirekin hitz egin edo begiratu beharko dut, arkitektoarekin, eta harekin batera ikusi zertan den Arau Subsidiarioen planteamendua San Antonio eta Bentako auzoen kasuan, datorren urtean zehar azterlan bat eskatu ahal izateko, ala ez, espalo horiek egiteko edo ez egiteko beharraren inguruan. Esan zidana izan zen haiek azterlan bat egingo zutela auzo horretatik pasatzen den ibilgailu-kopurua ezagutzeko, edo auzo horietan zehar, eta ondoren hainbat neurri zuzentzaile ezartzen saiatu, edo abiaduraren kontua arintzeko neurriak. Jakinarazi nahi dut zubiaren inguruan berarekin izan nuen bilera atzo izan nuela eta, hitz egin ahala, atera zirela Bentaren gaia eta Artziniegako errepidearena. Bide batez, atzo, eta hau ez dakit, Aldundiko norbait egon zen zuba begiratzen, zeren eta zubiaren harlangaitz-horma da erortzen ari dena. Retesera igo ziren nondik bota zitekeen ikusteko.



Alkatea: Besterik?

• Arkaitz San Jose Martínez: oraindik ere Osoko Bilkuratik pasa ez den arren, Gobernu Batzordetik pasa da Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra berrikustearen gaia, eta tira, guk ere azpimarratu dugu lehenbailehen jorratu beharreko gaia dela, uste baitugu indarrean dauden Arau Subsidiarioak ez datozela bat eraikuntza-arloen eta abarren benetako egoerarekin, baina egia da ere aztertzeke zegoela hortik, proposamen bat egin zela Arau Subsidiarioen 5. aldaketa puntualerako. Zentzu horretan, galdetu nahi genuen zein izango den gertakarien ordena eta zer ekarriko duen horrek, edo berrikusketa bati ekiten badiogu, nola geratuko den indarrean dagoen planteamendua, Plan Orokorren berrikusketa bati ekiten badiogu, gure ustez beharrezkoa dena baina beno, zein izango da...

Alkatea: aldaketa ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren zain dago. Egin behar dugu, esleitu behar dugu, eta orduan, nik teknikariei egin dizkiedan kontsulten arabera, Plan Orokorren garapena erabat bateragarria da Arauen aldaketa hau sustatzearekin. Argi dago Plan Orokorrak urte batzuk beharko dituela sortu arte, eta bestalde, arauen aldaketak laburragoak izango diren epeak izango dituela.

Arkaitz San Jose Martínez: baina, behin Plan Orokorren berrikusketaren izapidetzea hasita, ez al da eteten planteamendu osoa?

Alkatea: ba ez dakit onarpenaren momentutik aurrera den, ekiten zaion momentutik aurrera edo behin behineko onarpenaren momentutik aurrera.

Joseba Elejalde Ribacoba: aldaketa puntual honen barne, Artziniegako Arau Subsidiarioetan xedatutakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren inguruko proiektuaren zain badago ere, alda al daiteke lurzoruaren kategoria? Haiak ezin dute han ezer ere jarri, ingurumenari dagokionez Arau Subsidiarioetan modu jakin batean ageri delako. Nik hau diot bere garaian norbait saiatu zelako hor landa-turismoko etxeak jartzen eta ez zioten utzi, horrexegatik hain zuzen, lurzoruak zuen kalifikazioarengatik. Berez, 200 metro beherago kalifikazioa erabat desberdina da eta hor...

Alkatea: arauen aldaketaren zein alderdiri buruz ari zara?

Joseba Elejalde Ribacoba: 5. aldaketa puntualaz ari gara eta uste dut Gonzaloren gaia dela...

Alkatea: ez, ez, ez. Hori laugarrena da.

Joseba Elejalde Ribacoba: zein, barkatu?

Alkatea: hori laugarrena da.

Joseba Elejalde Ribacoba: ah, laugarren da, barkatu.

Arkaitz San Jose Martínez: 5. da Santa Kolomako landa-zonaldeena barne hartu nahi duena.

Joseba Elejalde Ribacoba: ah, bai, bai, nukleoen aldaketarena. Barkatu.

Alkatea: bai, laugarrena ere Osoko Bilkurara eraman behar dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: eta laugarrena zein egoeratan dago?

Alkatea: dokumentazioa aurkeztu behar dute.

Ascensión Hormazabal Meabe: ingurumen saileko txostena iritsi da, baina orain sustatzaileak hirigintza-dokumentua aurkeztu behar du hasierako onarpena jasotzeko.

• Joseba Vivanco Retes: nik banituen pare bat kontu. Alde batetik, hilabete honetako 6an pertsona batek idazki bat erregistratu zuen eskolako hondar-zonaldearen egoera salatzen. Argazkiak bidali zituen. Argazkiak aztertuta, agerikoa zen, eta handik pasatuz ere ikusten da harria bistara dagoela, hondarraren azpian dagoen harria agerian da, hondar guztia galduz joan delako, eta egoera apur bat arriskutsua da, apur bat ez, arriskutsua da eskolako haurrentzat. Hilaren 6an erregistratu zuen. Nik atzo galdetu nion pertsona horri ea norbaitek erantzun ote zion eta esan zidan Udaletik inor ez dela berarekin harremanetan jarri. Orduan galdetu nahi nuen zergatik ez den inor berarekin harremanetan jarri, gutxienez pertsona honi jakinarazteko izapideren bat egin den ala ez. Gaur egun, nik dakidala, egoera berean dago.



Alkatea: nik burutu dudan izapidea izan da obra-brigadari egoera jakinaraztea haiek azter dezaten eta, hobekuntzaren bat egin badaiteke, garbiketa-lanekin batera, ateratzen den betoipieza hori estal dadila, eta hori da egin den izapidea.

Joseba Vivanco Retes: eskolatik jarri al dira harremanetan Udalarekin edo Udaletik eskolarekin?

Alkatea: eskolatik? Ez.

Joseba Vivanco Retes: eta Udaletik eskolarekin?

Alkatea: zabuen kontuagatik?

Joseba Vivanco Retes: hondar-zonaldearen egoeragatik.

Alkatea: ez.

Joseba Vivanco Retes: nik, egia esan...

Alkatea: guk obra-brigadari jakinarazi diogu, haiek egin dezaten...

Joseba Vivanco Retes: berriz ere diot, hilaren 6an, eta pertsona honek adierazi zuenaren arabera, hondar-zonaldeak egunak zeramatzan horrela jada, egunak edo ez dakit zenbat denbora, eta ia hilabete beranduago, ez zaio pertsona honi erantzunik eman. Uste dut pasa den legegintzaldian gehien azpimarratu genituen gauzetako bat izan zela, gure alderditik behintzat, eta oraindik ere azpimarratzen dugu, jendeari erantzuna eman behar zaiola. Eta azkar ahal bada. Onerako edo txarrerako, eta zuk gaur ematen duzun erantzuna bada dagoeneko jakinarazi diozula obra-brigadari gaia aztertu eta konpon dezaten, erantzun hori bera eman behar da. Uste dut gai hau edo beste edozein gai aurkeztu duen herritarrak eskubidea duela gaiaren berri izateko. Nik atzo galdetu nion gaur Osoko Bilkura zegoelako eta jakin nahi nuelako zer edo zer egin den. Handik pasa naiz eta ez baita ezer ere egin. Eta esan zidan inor ez dela ezertarako berarekin harremanetan jarri. Hori alde batetik, nik uste dut gutxienez esan behar dela izapidetze-bidean dagoela, erantzuna hori bakarrik bada ere eta gero eskatu dena konpondu arte sei hilabete igarotzen badira ere. Bestalde, sinestezina iruditzen zait eskolan egoera hau egotea eta konponbide azkar bat ez ematea. Baina, dirudienez, eskolatik bertatik ere ez dira harremanetan jarri Udalarekin. Ez dakit Gurasoen Elkarteak, edo norbaitek...

Alkatea: guk pasa den urteko Gurasoen Elkartearen eskaera bat dugu, zintzilik dugu, eta bankuak eta zaborrontziak jartzearena ere enkargatu egin da.

Joseba Vivanco Retes: baina bankuez eta zaborrontziez ari gara, baina nik ez dakit zer gertatuko litzateke bat-batean, gaur, beste batzutan komentatu dugun bezala, haur bat erori eta zementu horren kontra kolpe bat hartzen badu eta gero paper bat ateratzen bada esanez norbaitek duela hilabete bat salatu egin zuela egoera hori, eta inork ez duela hor ezer ere jarri... Pentsatzen dut obra-brigadari esaten zaionean konpondu beharreko gaia dela, pertsonal-buruak esango diola "gai hori berehala konpondu behar da". Izan ere, egia da, zuk aipatu duzu bankuen gaia, lehengo egunean esan zidaten "aizu, jarri behar dituzten banku horiek, eskolakoentzat dira?" Zeren eta ez dakit zenbat denbora daramaten eskolako bankuen zain. Tira, baina azken finean bankuak dira. Beste gauza bat da hortik egoten diren haurrentzat arrisku bat dakarren instalazio bat izatea. Uste dut azkar jardun behar dela eta ahalik eta azkarren konpondu. Lehenik eta behin, kexa edo abisua jarri duen pertsonari erantzun, eta bigarrenik gaia azkar konpondu. Batez ere, zenbait kasutan, gauzak egin behar dira.

Alkatea: guk obra-brigadari jakinarazi diogu.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina zuk, pertsonal-buru gisa, obra-brigadari esango diozu lehenik bankua jarri behar den edo bigarrenik hondar-zonaldea konpondu behar den. Azken finean, pentsatzen dut 17.000 gauza txiki egongo direla eta lehentasunak daudela, eta lehentasuna ez da bera izango, eta kasu honetan, pentsatzen dut lehentasuna, ba tira, handia izango dela. Eta deigarria iruditzen zait ere eskolatik Udalari abisua helarazi ez izana, edo kexa edo ez dakit zer. Badirudi hori han dagoela eta Udalari kexa aurkeztu dion pertsonaren kezka dela soilik. Deigarria iruditzen zait.

Joseba Vivanco Retes: hau ere hurrengo gaiaren harira dator. Bada eskaera bat ere, uste dut urriaren 10ekoa dela, pertsona batek Amezaga Etorbideko bizilagun-elkartearen izenean aurkeztu zuena, ez dakit zonaldearen izena hori den, Txoriren ondoan egin diren atxiki berriak, eta bertan eskatzen da errepedeiri irtenbide bat ematea, ez baitute ez espaloirik eta ez beste



aldera gurutzatzeko zebrabiderik ere. Idazkia aurkeztu zen, pentsatzen dut Udalak ez duela eskumenik izango errepideen kontua delako, baina uste dut logikoena litzatekeela eskaera hori berehala errepideen sailari helaraztea, nik ez baitut ikusi inongo paperik...

Alkatea: ez, bidaltzeke dago.

Joseba Vivanco Retes: bidaltzeke, baina hilaren 10az ari gara eta hilabete oso bat pasa da ia eta egoera berean gaude. Begira, atzo, sarrerako erregistroak berrikusten ari nintzela, deigarria iruditu zitzaidan 28ko kexa bat aurkitzea. Kexa horretan pertsona batek zioen zuhaitz baten pikuak bide batean erortzen ari zirela, eta hilaren 2an karta bat bidali zitzaion pikondo horien jabeari zorua garbi zezan, adarrak moztu zitzan eta abar. Hau da, izapide ezin hobea. Baina gero gertatzen da hemen baditugula askoz ere garrantzitsuagoak diren gaiak, nire ustez, bide batean erortzen diren pikuak baino, edo kale batean, eta gai horiek atzeratzen ari gara, egin behar dugun gauza bakarra izanda Aldundiari jakinaraztea, herritar hauei bete-betean eragiten dien gaia baita. Eta haientzat gaia oso garrantzitsua dela uste dut. Beraz, gutxienekoa litzateke gaia azkar Aldundiari helaraztea, Aldundiak egin behar duen txostena egin dezan, gaia azter dezan eta, zebrabide bat edo semaforo batzuk jarri behar baditu, beharrezkoa dena jar dezan. Pentsatzen dut herritar hauek erantzun baten zain jarraituko dutela, ez baitakite Udalaren eskumena den edo... Egin behar dena da gaia Aldundiari helarazi eta herritarrei esan: "Aldundiari helarazi diogu eskumena haiena baita". Eta Udala "ongi geratuko da", eta kito, ez da horren zaila. Orduan...

Alkatea: ez, ba hori egiteke dago. Hori egia da, egiteke dago.

Joseba Vivanco Retes: berriz ere diot kexarena eta salaketarena, baina espero dut gai hauek azkar konpontzea, azken batean ez baitira bide baten gainean erori diren pikuak.

Joseba Vivanco Retes: bestalde, esaten ari garenekin zerikusia duen edo hortik eratoritzen den beste kontu bat. Jakin nahiko nuke Udal Gobernuaren jarrera zein den udal igerilekuen tabernaren gaiari buruz. Udal Gobernuaren asmoa ote den taberna hori berriz ere irekitzea. Hori da nire lehen galdera. Erantzuna baiezkoa bada, jakin nahiko nuke noiz aterako den, izan ere badakigu taberna irekitzeko eskaera bat badela. Pentsatzen dut tabernaren alokairurako edo esleipenerako baldintzen agiria atera beharko dela. Eta nire hirugarren galdera da zergatik daramatzagu bi hilabete, gutxienez, guri jakinarazi zitzaigunetik behintzat, ezer ere egin ote den jakin gabe. Hau da, ez dakigu izapideren bat egin den ala ez, ez dakigu zergatik igaro diren bi hilabete guri ezer jakinarazi gabe eta baldintzen agiria aterako den edo ez jakin gabe, batere ez. Beraz, nik jakin nahi dut, printzipioz, asmorik baden, eta ondoren, zergatiak.

Alkatea: igerilekuetako taberna irekitzeko? Jakina badela irekitzeko asmoa.

Joseba Vivanco Retes: orduan, lehenengo galdera erantzun da.

Alkatea: jakina badela asmorik. Lehenik, interesdunarekin gauzak zehaztu behar dira, jakin behar da zein baldintzatan hartu nahi duen berak, eta tira, bestalde taberna dugu, momentu honetan lokala erabiltzen ari baita dantzetarako eta Artziniega Rock eskolarako ere. Orduan kokalekuren bat bilatu beharko da horretarako, edo hori egokitu, tokia aldatu bi jarduerak bateragarriak izan daitezen.

Joseba Elejalde Ribacoba: argi dago Udal honetako guztiok nahi dugula hori aurrera atera dadin.

Joseba Vivanco Retes: ez, erantzun nahi nuen benetan amorratzen nauen gaia delako, zeren eta, berriz ere diot, aurreko bi gaiekin bezala, guk askotan salatu dugu nagikeriaren gaia, eta behin eta berriz gertatzen da, eta uste dut ez lukeela gertatu behar ez baita ere horren zaila. Igerilekuetako taberna eskatu duten pertsonak gutxienez bi hilabete eta erdi daramatzate zain Udalari beren interesa jakinarazi ziotenetik. Haiek nahi dutena da hor beren lanbidea eta bizimodua aurkitzea. Inbertsio bat egin nahi dute eta taberna etenik gabe ireki, ahal bada. Ezin liteke Udaletik enplegu batzuen inguruko bandoak jartzen egotea, Koadrilan sei peoientzako lanpostuak, eta beste ez dakit zer, eta bestalde gertatzea badirela pertsonak bizibidea bilatu nahi dutenak eta Udalari proposamen bat egin diotenak eta, bi hilabete eta erdi beranduago, bi hilabete guk dakigula guri jakinarazi zitzaigunetik, irailaren hasieran, eta egoera berean jarraitzen dugu. Ondorioz, pertsona hauek ez dakite hor sartu ahalko diren ala ez. Eta denbora aurrera doa.



Eta haientzat beharra da. Garrantzitsua da. Orduan Udaletik azkenean zer... nik ez dakit zer egin den.

Alkatea: kasu honetan ezin diguzu nagikeria leporatu.

Joseba Vivanco Retes: ba azaldu iezadazu orduan. Bi hilabete eta erdi zergatik...?

Alkatea: behin baino gehiagotan bildu gara pertsona horiekin. Aztertzen aritu gara eta nik galdetu diet ere zein izango litzatekeen egin beharreko inbertsioa, haien ustez, eta bestalde Artziniega Rock eskolarekin eta eskolarekin hizketan ari gara momentu honetan erabiltzen ari diren lokalak lekuz aldatzeko, aztertzen ari baikara igerilekuetako taberna-jatetxearen eta orain egiten ari den erabilera bateragarri egiteko aukera. Eta errentariak esan zigutena da haientzat ez direla bateragarriak. Pasa den astean egon ziren eta esan zuten agian bateragarri egin zitezkeela. Beraz, nagikeriarik ez.

Joseba Vivanco Retes: nik azpimarratzen dut, nagikeria egon da eta utzikeria egon da zeren eta...

Alkatea: nahi duzun guztietan esan dezakezu hori, baina kasu honetan ez da nagikeria kontua izan.

Joseba Vivanco Retes: nagikeria eta utzikeria, berriz ere diot. Onartu ezin dena da, arrazoa, hau da, pertsona hauek hori planteatzen dutenean, irtenbide bat eman behar zaio. Arazoa dela igerilekuak erabiltzen ari direla? Oso ongi, ba alternatibak bilatu behar dira.

Alkatea: eta bilatzen ari gara.

Joseba Vivanco Retes: beno, eta alternatibarik bada? Zein da arazoa? Ez dago lokalik? Hori da arazoa? Hau da, badira pertsona batzuk zain daudenak, azken batean lanpostu baterako zain daude, eta arazoa da dantza-taldea eta Rock eskolakoak nora mugitu. Horren zain gaude? Nora mugituko ditugun? Begira, ezin liteke. Honek azkar joan behar du. Dantza-eskolakoak, Rock eskolakoak, ikastaro horietarako irailean jakin behar dugu zein behar dituzten, zein egunetan emango diren eta abar, eta horren arabera irtenbideak bilatuz joango gara. Baina bi hilabete daramatzagu. Egon behar dira, atera behar dira, oraindik akordio batera iritsi beharra dago, baldintzen agiri bat atera behar da, pertsona hauen interesa bazen, demagun, Gabonetarako irekitzea, ba akabo, uste dut nik. Hartzen badute, ireki dezatela otsailean, ostalarien hitzetan Artziniegako hilabeterik baxuenean. Azken batean pertsona hauekin jolasean ari gara. Irtenbide azkar bat eman behar zaie. Dantza-taldearentzat lokal bat bilatu behar dela? Dantza-taldearentzat lokal bat bilatu da, ez? Rock taldearentzat lokal bat bilatu behar dela? Rock taldearentzat lokal bat bilatuko da. Guk proposamen bat aurkeztu genuen, hor goikoa. Jaramonik egin zaio? Ez, ez zaio egin. Beraz, ez esan guri ez dagoela alternatibarik.

Alkatea: gu horretan ari gara eta alternatibarik bada.

Joseba Vivanco Retes: alternatibarik bada? Eta zergatik ez dira gauzatu jada? Sinestezina iruditzen zait jende horrek itxaroten ari diren bezala itxaroten jarraitu beharra eta ez dakite inondik ere sartu ahalko diren ala ez. Eta gainera Agiri hori atera behar da, eta gauza horiek egin behar dira. Eta ondoren, pentsatzen dut Udal gisa, ez dakit inbertsioren bat, baina garbiketa on bat behintzat egin beharko zaio lokalari. Diot nik, gutxienez. Enpresaren bat bidali eta sakonki garbi dezala. Niri sinestezina iruditzen zait, egia esan, ez dakit zer eta ez dakit zenbatekin bandotxoak ateratzen ari gara eta gero pertsonak zain ditugu, esanez "aizue, ez dakigu baietz ala ezetz, ez dakigu sartu ahalko garen, ba tira, gu bagoaz. Ba, oso ongi, begira, etzi inork erantzunik eman ez badigu, ba aizue, beste toki batean inbertitzera joango gara eta kito". Eta tira, igerilekuekin jarraituko dugu, jarrai dezatela dantza-taldekoek, jarrai dezatela Rock eskolakoek batera jotzen eta dena konponduta, eta pertsona horiek joan daitezela beste toki batera negozioa egitera. Primeran, ba hala gaude, bikain. Baina sinestezina iruditzen zait, hau modu azkarrean egin ez izana, jakinda behar bat dagoela, jende horrek beharra duela. Ez dakit, berriz ere diot, nagikeria eta utzikeria egon dira.

Alkatea: ez da ez nagikeriarik eta ez utzikeriari egin. Zuk azkarrago egin izango zenukeen, agian bai, ez dakit.

Joseba Vivanco Retes: begira, gauza da, eta edozeinek egin izango luke azkarrago. Gauzak seriozki hartuta. Ea gauzak seriozki hartzen ditugun.

Alkatea: guk seriozki hartu ditugu gauzak.



Joseba Vivanco Retes: ez dituzue serioski hartu, Iñigo.

Alkatea: zure ustez ez dugu ezer ere serioski hartzen. Ez dugu ezer ere serioski hartzen.

Joseba Vivanco Retes: barkatu...

Alkatea: baina beno, kritika egitea beti da erraza, beti da horrela.

Joseba Vivanco Retes: ez, ez, barkatu. Ezer ere hori, ez. Ni hona nator hiru gairekin, argudioak ematen dizkizut eta zuk ezeztatzen dizkidazu. Ez dizkidazu ezeztatzen arrazoa dugula ikusten duzulako. Arrazoa dugu. Orduan ez niri esan "ez dugu ezer ere ongi egiten". Ez. Guk ez dugu inolako arazorik gauzak ongi egin direla esan behar denean. Beste gauza bat da hemen gaudela egin behar duguna egiteko. Egiten dituzuen gauzak gaizki egin direla uste dugunean, utzikeria edo nagikeria egon dela, esan behar dugu eta horretarako gaude hemen ere. Eta kasu honetan hori gertatu da. Eta espero dugu irtenbide azkar bat emango zaiola honi jende horri baietz ala ezetz esan ahal izateko. Baina berehala.

Alkatea: begira, bihar bilduko naiz Artziniega Rock eskolakoekin eta eskolako lokalak ikusiko ditugu balio duten erabakitzeke.

Joseba Vivanco Retes: eta hori duela bi hilabete egiterik ez zegoen, irailan? Hori irailan egiterik bazen. Gero Rock eskolakoak datoz, gaur, gaur dugu, gaur gero Gobernu Batzordean dugu ordutegien eta behar dituzten lokalen eskaera. Azaroan gaude. Pentsatzen dut hori gainerako guztiarekin bezala, gainerako talde guztiarekin, eskatuko zitzaiela irailan ikastaroetarako edo egiten ari diren horretarako beharrak aurkezteko. Bikain. Hori Udalaren betebeharra da, esatea "jaun-andreok, irailerako honek aurkeztuta egon behar du, mahai gainean beste gauza batzuk ere badituzalako". Ez abenduan. Ez azaroan.

Alkatea: beno, ba horrela gertatu da eta kito, daukaguna daukagu.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina gauzei lehentasuna eman behar zaie. Guk, kasu honetan, uste dugu lehentasunezkoa zen gauza bat bazela eta erantzuna eman behar zitzaiola, ba tira, zuek beste bati eman diozue lehentasuna, horregatik gaude aulki desberdinetan.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik gauza bat argitu nahi dut bakarrik, uste baitut eman duzun azalpenean gutxi gorabehera berresten dela guztiok pentsatzen duguna, bi hilabete eta erdiko epea guztioi gehiegizkoa iruditzen zaigula, luzeegia, eta irtenbideak bilatze aldera, ez dut uste inor harrutuko denik. Nik ez dakit nagikeria izan den edo ez den izan, baina Alkatetzaren aldetik, agian izan dituzte izan dituzten bilerak udal igerilekuetako lokala alokatu nahi duen enpresarekin eta momentu honetan bertako gela edo espazio komunak erabiltzen ari diren taldeekin. Baina nik uste dut, bi hilabete eta erditan, Udal honetatik iniziatiba hartzea bagenuela eta bi talde horiek beste udal eraikinetako aretoetara aldatu. Pertsona horiei, argi dago, irtenbideren bat eman behar genien lehenago, irtenbideren bat edo erantzun bat, irtenbide bat baino erantzun bat, eta ez dakit azkenean Agiririk egongo den edo Agiririk ez den egongo, izan ere, azkenean prozedura negoziatua bada, ez dakit Agiririk beharko den, baina azken batean egia da Udal honetan...

Alkatea: bai Agiriak atera behar dira. Dena den, pertsona hauei ere eskatu diet zenbakiak aurkezteko, gauzak garatzeko, atera dezakegun alokairuaren baldintzak zeintzuk diren aztertzeke, beharrezko inbertsioa zein den. Hor gabealdi bat negoziatu beharko dugu Agiriak ateratzeko orduan, edo besterik gabe esan "aizu, ba inbertsioa oso handia da". Agian Udalak, garbiketa bat egiteaz gain, agian lokalean inbertsioren bat egin beharko du.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik honekin amaituko dut, Iñigo, eta zure hitzak dira, zure hitzak Torre de Artziniega jatetxeari buruz. Zure hitzak, gutxi gorabehera, oker egon naiteke eta, oker banago, esaidazu edo zuzen nazazu, zure hitzak izan ziren garrantzitsuena zela genuen arazo hori ixtea eta taberna edo jatetxea lehenbailehen irekitzea. Kasu honetan, arazo bat dugu eta lehenbailehen konpondu behar dugu arazoa lokala hartu nahi duen enpresari tokia eta irtenbidea emateko. Eta zuk ongi diozun bezala, zuk beti pentsatzen duzula herri honetako biztanleen ongizate orokorrean, nik uste dut bi hilabete, bi hilabete eta erdi baino askoz ere epe laburragoan konpondu behar zela igerilekuen afera. Erabakiak hartzeko gaude hemen, ez batzuekin hitz egiteko, besteekin hitz egiteko eta mundu guztiarekin ongi geratzen saiatzeko. Zenbait momentutan, agian, talderen bati edo besteri esan beharko litzaioke "ba agian hilabete honetan zain geratu beharko duzue mundu guztiari tokia bilatzen diogun arte eta zuen jarduera burutzeko espazioa ematen dizuegun arte". Baina enplegua sortuko duen jarduera ekonomikoa izanda,



Udalari aberastasuna ekarriko diona, nik uste dut horretan askoz ere beligeranteagoak izan beharko genukeela, askoz ere azkarragoak eta askoz ere zentzu gehiagorekin. Eta gauza bakoitzari eman behar duen eta merezi duen beharra eta presa.

Alkatea: Besterik?

• Alazne Lafragua Ureta: bai, nik. Lehen ez zen momentu aproposa baina orain bai, uste dut. Lehen hitz egin dugu Gazte-txokoaren obrari buruz. Egia da, nik uste, duela urtebete jada ireki zela prozesu bat gazteei, gurasoei eta abarri gonbidapena luzatuz. Oso polita zen dena eta oso hala zirudien, eta guztiei luzatu zitzairen araudia prestatzeko proiektuan parte hartzeko gonbidapena, nola funtzionatuko zuen erabakitzeko, beharrak aztertzeko, etab., etab. Bi bilera egin ziren eta hirugarren bat airean utzi zen gazteentzat, ez dut gogoratzen etorri zen mutikoaren izena zein zen, Jonathan, Jonathan honek nolabaiteko orrialdeak ekarri zizkien araudiarekin, ez dakit nongo araudia zen zehazki, oinarri gisa hartzeko, eta zer iruditzen zitzairen ikusteko. Hitz egin genuen eta eztabaidatu genuen. Hori horrela geratu zen, beste bilera bat antolatuko zela adostu genuen, duela urtebete jada. Ez da beste ezer ere egin, inork ez daki ezer, gazteek, nik pentsatzen dut ez dutela jakingo konponduko denik ere. Noski, gazteen beharra...

Arkaitz San Jose Martínez: baten bat agian kanpora ikastera joango zen eta guzti.

Alazne Lafragua Ureta: dena den, gazte hauen beharrak, bizi duten etapa honetan, urte batetik bestera aldatzen dira eta bilera hori bera gazte horiekin burutzen baduzu urtebete beranduago, seguruenik beren beharrak desberdinak izango dira ere. Orduan nik ez dakit proiektua berritik hasi behar dugun, izan ere, ezin da urtebete pasatzen utzi gazte hauei berriz hots egin gabe.

Alkatea: zuk diozu ez duzula ulertzen urte batean zehar beste bilera bat antolatu ez izana.

Alazne Lafragua Ureta: noski. Prozesu bat ireki zen eta erdizka geratu da. Zer gertatzen da prozesu horrekin?

Alkatea: ba hori Batzordean eztabaidatuko dugu, ados?

Alazne Lafragua Ureta: ez, eztabaidatuko dugu hori niri iruditzen zait, orain galdetzen ari natzaizu, lehenago ez zen momentu aproposa, orain galdetzen ari natzaizu, gutxienez orain erantzun bat jaso nahiko nuke. Ez esan "ez, eztabaidatuko dugu". Hau duela urtebete eztabaidatu behar genuen.

Alkatea: nik diotsut Batzordean aztertuko dugula gaia.

Alazne Lafragua Ureta: niri "Batzordean aztertuko dugu" erantzun horrek ez dit askorako balio, izan ere...

Alkatea: Batzordean eztabaidatuko dugu.

Alazne Lafragua Ureta: bai, noski. Lehen ez zen momentua, orain ez da momentua.

Alkatea: Besterik?

• Unai Gotxi Kaxtresana: nik galdetu nahi nizun garraioaren inguruko Batzordea noiz sortuko den.

Alkatea: Aldundiari datuak eskatuko dizkiogu eta, datuak ditugunean, Batzordearen deialdia egingo dugu.

Unai Gotxi Kaxtresana: baina zer esan nahi duzu Batzordearen deialdia egingo dela esaten duzunean?

Alkatea: Batzordea egingo dugula, Gurasoen Elkarteetako ordezkariarekin.

Unai Gotxi Kaxtresana: baina alde zurretik ordezkariak ezarri eta guzti hori, edo bilera informal bat antolatuko da azkeneko aldi bezala.

Alkatea: azkeneko aldi Babio Guraso Elkartearekin egin genuen bilera, eta Babio Guraso Elkartearen ordezkariak etorri ziren.

Unai Gotxi Kaxtresana: eta orain diozu Batzordea osatuko dela, eta garraiorako Batzorde espezifiko bat sortuko dela.

Alkatea: Batzorde bat osatuko dugu eta bertan parte hartzera gonbidatuko ditugu Babio Guraso Elkarte eta nik uste eskolako Guraso Elkarte ere gonbidatu behar dugula.

Unai Gotxi Kaxtresana: eta noizko aurreikusitako da, diozu?

*Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)*



*Artziniegako Udala
(Araba)*

Alkate: ba, berriz ere diot, Aldundiari datuak eskatuko dizkiogu, Artziniegako egoera espezifikoa zein den aztertzeko, hartu beharreko neurriak zeintzuk diren ikusteko.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta María Lorente Burgos EAJ-PNV alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamarrak eta hoge minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.